

AKRONIMOA:

Lactiker

LOGOA:



IKERKETA TALDEAREN IZENA

Animalia Jatorriko Elikagaien Kalitatea eta Segurtasuna

Kontaktua Farmazia Fakultatean (Izena, posta elektronikoa): Luis Javier R Barron

luisjavier.rbarron@ehu.eus

Web orrirako esteka: <https://www.ehu.eus/eu/web/lactiker/home>

Zientziaren esparrua(k): Nekazaritza- eta Elikagai-Zientziak

Hitz gakoak:

elikagaien kalitatea, elikagaien kaltegabatasuna, prozesu teknologikoak, prozesu kimiko eta biokimikoak, zentzumenezko analisia, analisi fisiko-kimikoa, analisi biokimikoa, analisi instrumentala, diseinu esperimental, diseinu komertziala, kontsumitzaileen analisia, analisi estatistikoa, esnea eta esnekiak, haragia eta haragi-produktuak, konposatu funtzionalak, autentifikazioa, trazabilitatea, ekoizpen-sistemak, jasangarritasuna

Lactiker taldeak animalia jatorria duten elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren gaiak ikertzen ditu. Bere ikerkuntza eremua arlo anitzekoa da, biokimika, mikrobiologia, teknologia, nutrizioa, eta zentzumena, hain zuzen ere, eta, batez ere, esnekiekin eta haragi-produktuekin lan egiten du.

Lactiker taldeak bi lan alderdi nagusi ditu:

Oinarritzko zientzia, zeinen helburua esnekiak eta haragizko produktuak ekoizteko prozesu fisiko-kimiko, biokimiko, mikrobiologiko eta teknologikoak karakterizatzea den, lehengaien ekoizpenerako sistemetatik jateko prest dagoen azken produkturaino.

Zientzia aplikatua, zeinen helburua produkzio-sektoreari, instituzioei eta kontrolerako erakunde publikoei teknologia eta lortutako jakintza transferitzea den, animalia jatorriko elikagaien ekoizpen prozesuak hobetzeko, bere kalitatea eta segurtasuna ziurtatzeko eta produktu berrien garapenean laguntzeko asmoarekin.

Ikerketa-lerroak (gehienez 800 karaktere)

1. Animalia jatorriko elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna.
2. Goi-mailako kalitateko haragiaren ekoizpena eta ebaluazioa: ezaugarri nutrizional eta sensorialen azterketa, eta kalitatearen adierazgarri izan daitezkeen markatzaile genetikoak bilatzea.
3. Animalia-jatorriko produktuen trazabilitatea eta autentifikazioa.
4. Elikagaien analisi sensoriala: ezaugarri sensorialen, osaketaren eta prozesatze-teknologiaren arteko erlazioa.
5. Gaztagintzarako prozesatze-teknologiak hobetzea eta egokitzea.
6. Elikagaiak kontserbatzeko material eta teknologia berri egokiak.
7. Animalia-jatorriko elikagaien kontsumoa eta giza osasunean duen eragina.
8. Esneki hartzituen mikrobiotaren funtzionaltasuna eta kaltegabatasuna.

Ekipamendua

Errendimendu handiko tresna analitikoak, hala nola FID detektagailudun gas-kromatografoak (GC), olfatometria-detektagailuari akoplatutako GC-MS bat, likidoen bereizmen handiko kromatografoak

(HPLC) (fluoreszentzia-, fotodiodo- eta argi-difusio bidezko detektagailuak dituztenak), infragorri hurbileko espektroskopia-ekipo bat, elektroforesi ekipoak, eta UV/VIS espektrofotometroak.

Ultrazentrifugagailu eta superzentrifugagailu bana, baita teknika molekularretarako (PCR) beharrezko ekipamendua ere.

Informatizatutako dastalekuak, talde-bileretarako gelak eta sukaldea, analisi-saiotetarako behar bezala hornituak.

Eskala txikiko gaztagintzarako (60 litroko upelak) ekipamendu pilotua, baita hutsean zein eraldatutako atmosferan ontziratzeke makinak ere.

Ikerketa taldekideak		Saila	Zentrua	Sail Atala
Ikertzaile Nagusia (IN)	Luis Javier R Barron	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Ikertzailea	Noelia Aldai Elkoro-Iribe	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Ikertzailea	Iñaki Etaio Alonso	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Ikertzailea	Ana Isabel Nájera Ortigosa	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Ikertzailea	Francisco José Pérez Elortondo	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Nutrizioa eta Bromatologia
Ikertzailea	Marta Albisu Aguado	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Nutrizioa eta Bromatologia
Ikertzailea	María Ángeles Bustamante Gallego	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Nutrizioa eta Bromatologia
Ikertzailea	Mailo Virto Lekuona	Biokimika eta Molekula-biologia	Farmazia Fakultatea	
Ikertzailea	Gustavo Amores Olazagirre	Biokimika eta Molekula-biologia	Farmazia Fakultatea	
Ikertzailea	Igor Hernández Ochoa	Biokimika eta Molekula-biologia	Farmazia Fakultatea	
Doktoretza aurreko laguntzailea	Ana Blanco Doval	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Doktoretza aurreko laguntzailea	Nagore Iglesias Rodrigo	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia
Doktoretza aurreko laguntzailea	Gorka Santamarina García	Biokimika eta Molekula-biologia	Farmazia Fakultatea	
Doktoretza aurreko laguntzailea	Garazi de la Fuente Aldazabal	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmazia Fakultatea	Elikagaien Teknologia

Ikerketa taldearen argazkia (taulan txertatu edo fitxarekin batera posta elektronikoz bidali)

